

Larrunaldeko Herriko Etxean eta herrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak

Deliberoa



2008ko urtarrilean

Kontseilua

Aurkibidea

Sarrera.....4

Lehenengo kapitulua

Xedapen orokorrak.

1-4 artikulua5

Bigarren kapitulua

5-29 artikulua5-13

Xedapen gehigarriak.....14-15

Sarrera

Euskara Euskal Herriaren kultura ondarearen oinarritzko osagarria da, berezkoa eta ez ofiziala bere lurralde osoan. Haren egoera gutituak beharrezko egiten du lehentasunezko trataera eskaintzea euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatu nahi badira.

Administrazio Publikoen autonomia printzipioa kontuan hartuz, adieraz dezakegu herri-administrazioari badagokiola euskararen normalizaziora iristeko behar diren neurriak hartzea, euskararen erabilera bermatu eta arautzea, hala nola ezagutza segurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabaki eta erregulatzea. Administrazio bakoitzari dagokio aipatu arau eta xedapen orokorrak bere lan-eremuan aplikatzea eta aplikazio horretarako arauak eman eta bitartekoak ezartzea. Horixe da delibero honen xedea Larrunaldeko herrian hezurmamitu eta aplikatu daitezkeen arauak eman eta betearaztea.

Aipaturikoan oin hartuz, delibero honek oinarriak finkatzen ditu, euskararen erabileraren normalizazioari buruzko herri-ekintza arautzeko, hala administrazioaren barne erabilerari eta herritarrekiko harremanei dagokienez, nola herriaren jendarte- bizitzan ere.

Herriko Etxe honen lehentasunezko lana herriaren euskal hiztunen kopurua ezagutzea da, eta horretarako beharrezko baliabideak emanen ditu eperik laburrenean.

Helburuak erdiesteko epeak herriko etxearen eta herriaren egoera soziolinguistikoa aintzat hartuz zehaztuko ditu Herriko Etxeak, bertan eskaintzen diren aplikazio graduen arabera.

Delibero honetan gai nagusia Hizkuntzaren erabilera normalizatzeko plana da. Beraz lehen lehenik, Herriko Etxeak, aipatu puntuak bilduko dituen Plana onartu behar luke eta aplikazioaz arduratzeko baliabideak bozkatu.

Artikuluak

Xedapen orokorrak

1. ARTIKULUA **Hizkuntza ofiziala**

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, herriko hizkuntza ofiziala eta lehentasunezkoa izendatzen dugu delibero honen bidez. Ondorioz Larrunaldeko Herriko Etxean, lotuak zaizkion erakundeetan eta, oro har, herriko bizian, herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideen bermatzeari begira, euskara normaltasun osoz erabiltzeko aukera eskainiko du Herriko Etxeak.

2. ARTIKULUA **Aplikazio-eremua**

Larrunaldeko Herriko Etxeak, bere eskumeneko kanpo-zerbitzuek eta lotuak zaizkion erakundeetan ere delibero honen xedapenak ageri eremuetan aplikatuko ditu. Bere barne funtzionamenduan, herritarrekiko harremanetan, baita kanpoko erakundeekiko harremanetan ere, azken helburua euskararen ezagutzaren eta erabileraren normalizazioa izanen delarik.

Herriko Etxearen eskumeneko zerbitzu batzuk hirugarrenek egiten badituzte edozein dela ere horretarako kudeaketa modua, haietan delibero hau aplikatzea galdeginen da.

3. ARTIKULUA **Lehentasunezko tratamendua beste hizkuntzekiko berdintasun erreala lortzeko**

Hainbat eta hainbat urtetan euskarak jasan duen ordezkatzeko-prozesuaren ondorioz, benetako normalizaziotik urrun gaude. Horiek horrela, eta euskararen normalizazioa lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendu berezitua emanen dio Larrunaldeko Herriko Etxeak euskarari. Lehentasunezko tratamendu horren helburu nagusia euskararen normalizazioa izanen da.

4. ARTIKULUA **Herritarren hizkuntza-eskubideak**

Euskal Herriko hiritar guziek dute euskara, ezagutu ez ezik, erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Larrunaldeko Herriko Etxeak hizkuntza eskubideen izenean honako hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie espresuki hiritarrei:

- a) Herriko Etxearekin, azpikontratatu enpresekin eta bere menpeko organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz gauzatzeko eskubidea, Zerbitzuaren kalitatean murrizketarik eragin gabe.
- b) Herriko Etxeak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro euskaraz egiteko eskubidea.
- c) Herriko Etxearen argitalpenak eta Herriko Etxeak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.
- d) Herriko Etxeko edozein bilkuratan euskaraz aritzeko eskubidea.

Bigarren kapitulua

5. ARTIKULUA Herriko Etxearekiko harremanak euskara hutsean ziurtatzea

Hiritarrek Herriko Etxearekin hautatu hizkuntzan aritzen ahalko direnez, Herriko Etxearekin harremana euskara hutsean izan nahi duten hiritarren hautua bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu eta Herriko Etxeak euskaraz komunikatu nahi duten herritarrei euskaraz zuzenduko zaie Larrunaldeko Herriko Etxea. Gainerako herritarrei helaraziriko idatzizko komunikazioetan euskara nagusituko eta lehenetsiko da letra tipoa, lekua, kolorea erabiliz, euskara nabarmentzeko.

Herriaren tipologiaren arabera honako mailak hartuko ditugu helburutzat

| Herri tipologia | Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna) | Graduazioa |
|-----------------|--|--|
| • 1. tipologia | %70 - %100 | Herritarrekiko arreta zerbitzuen % 100 |
| • 2. tipologia | %50 - %70 | Herritarrekiko arreta zerbitzuen % 100 |
| • 3. tipologia | %15- %50 | Herritarrekiko arreta zerbitzuen % 75 |
| • 4. tipologia | %0- %15 | Herritarrekiko arreta zerbitzuen % 50 |

6. ARTIKULUA Laneko hizkuntza

4. eta 5. artikuluetan aitorturiko eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Herriko Etxeak. Horiek horrela, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik, laneko hizkuntza ere izanen da euskara Larrunaldeko Herriko Etxean, delibero honetan xedatutakoaren arabera. Beraz, Larrunaldeko Herriko Etxeko langile guzietan ezagutuko dute euskara, jadanik lanean ari direnak euskaldunak eta lanpostu berrietan euskaldunak hartuz edo euskalduntzeko engaiamendua hartuz.

Herriko Etxeen arabera ondoko irizpideak kontuan hartuko dira langileak euskalduntzeko momentuan:

- Publikoarekin harremanetan diren lanpostuei emanen zaie lehentasuna
- Euskara jada dakitenen maila indartzeari edo nozioak dituztenen euskalduntzeari emanen zaie lehentasuna, euskalduntzea fiteago egingen baita.

Herriaren tipologiaren arabera honako mailak hartuko ditugu helburutzat

| Herri tipologia | Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna) | Graduazioa |
|-----------------|--|---|
| • 1. tipologia | %70 - %100 | Herriko Etxeko zerbitzuen % 100 euskaldun |
| • 2. tipologia | %50 - %70 | Herriko Etxeko zerbitzuen % 100 euskaldun edo erabilera planean |
| • 3. tipologia | %15- %50 | Herriko Etxeko zerbitzuen % 70 euskaldun edo erabilera planean |
| • 4. tipologia | %0- %15 | Herriko Etxeko zerbitzuen % 25 euskaldun edo erabilera planean |

7. ARTIKULUA Langileak euskalduntzea

Aitzineko artikulua betetzeko xedez, langileak euskalduntzeko neurri egokiak hartuko ditu Larrunaldeko Herriko Etxeak. Horretarako plangintza bat sortuko du lanpostu bakoitzean aritzen diren langileek noizko ezagutu behar duten zehaztuz. Edozein kasutan langileri osoaren euskalduntzeak ez du 10 urte baino gehiago iraunen. Ondorioz, lanpostu guzietan izanen dute betetze data eta ez da 10 urte baino luzeagokoa izanen.

Herriko Etxean edo Herriko Etxearen menpeko erakunde batean lanean aritzeko enplegaturiko bertzelako langileak, enpresak edota norbanakoak, euskaldunak izanen daitezen lehenetsiko da euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzeko gisan.

Langileek kasu guzietan euskara maila egokia segurtatu beharko dute eta horretarako kontratatzerakoan euskarazko froga pasaraziko zaie (idatzizkoa zein ahozkoa), ez bada EGA agiria edo baliokide bat badutela. Hautagaien artean ez bada euskaldunik, edota, galdegin diploma edo gaitasuna dutenen artean ez bada euskaldunik, hasieratik jakinaraziko zaie euskara ikasi beharko dutela epe zehatz batean. Formakuntzak Herriko Etxeen betebeharretan sartuko dira, ordezkapena dela edota diru iturriak direla.

Lanpostuak betetzeko prozedura guzietan, Larrunaldeko Herriko Etxeak, hizkuntza adituei galdeginen die laguntza azterketak egin eta zuzen ditzaten.

Herriaren tipologiaren arabera honako mailak hartuko ditugu helburutzat

| Herri tipologia | Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna) | Graduazioa |
|-----------------|--|---|
| • 1. tipologia | %70 - %100 | Langile guziaz euskaldunak izanen dira. |
| • 2. tipologia | %50 - %70 | Langile guziaz euskaldunak izanen dira edo formakuntza plan batean sartuak. |
| • 3. tipologia | %15- %50 | Langileen % 70 euskalduna edo formakuntza plan batean sartuak. |
| • 4. tipologia | %0- %15 | Langileen % 25 euskalduna edo formakuntza plan batean sartuak.euskaldun edo erabilera planean |

8. ARTIKULUA Harreman elebidunak segurtatzea

Larrunaldeko Herriko Etxeak, zerbitzu eta unitateak gaituko ditu euskaraz funtziona dezaten, herriko zerbitzu guzietan hiritarrari euskarazko harremanak segurtatzeko xedez. Euskara ezagutzen ez duten herritarren kasuan, komunikazioa idatzizkoa denean euskara lehentasunezko izanen da.

Herritarrari lehen hitza eta erantzuna euskaraz egingen zaio. Segitu, berriz, herritarrak egiten duen hizkuntzan.

Herriaren tipologiaren arabera honako mailak hartuko ditugu helburutzat

| Herri tipologia | Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna) | Graduazioa |
|-----------------|--|--|
| • 1. tipologia | %70 - %100 | Kasu guzietan lehen hitza euskaraz egingen da. |
| • 2. tipologia | %50 - %70 | Kasu guzietan lehen hitza euskaraz egingen da. |
| • 3. tipologia | %15- %50 | Arreta zerbitzuetan lehen hitza euskaraz egingen da. |
| • 4. tipologia | %0- %15 | Arreta zerbitzuen % 25ean lehen hitza euskaraz egingen da. |

9. ARTIKULUA Lanpostuak betetzeko prozedurak

1.- Lanpostu berriak.

Funtzionario izaera, nahiz behin betirako, nahiz behin behineko lan izaera duten lanpostuak betetzeko euskararen ezagutza ezinbestekoa izanen da.

2.- Kontratudun langileak.

Plangintza baten arabera euskaldunduko dira langileak. Plangintzaren helburu nagusia 10 urteko epean langile guziak euskalduntzea izanen da.

Herriko Etxeak, urtero, herriko langileen ordezkarien lankidetzaz, langileriaren euskalduntze-plana onartuko du. Planaren helburu nagusia eta aldaezina Planean finkatu epeen arabera langile guziak euskaldunak izatea eta euskaraz lan egin ahal izatea izanen da.

3.- Barne sustapena

Euskaldun batek betetzen duen lanpostua ezin izanen du euskara ezagutzen ez duen batek bete, barne sustapenaren bitartez.

4.- Ordezkatzeak

Euskaldun batek betetzen duen lanpostua ordezkatzerakoan euskara ezagutzen ez duen langile batek bete dezan saihestuko da.

5.- Lan deialdiaren euskararen eskakizuna

7. artikuluan aipatzen den plangintzan agertzen diren lanpostuak betetzeko euskararen ezagutza ezinbertzekoa izanen da enplegatze berrietan. Ezagutza maila, lanpostuaren ezaugarrien eta betekizunen arabera izanen da.

6.- Azterketen ardura

Lanpostuak betetzeko prozedura guzietan, Larrunaldeko Herriko Etxeak hizkuntza-adituei laguntza galdeginen die proba pasarazteko. Planak zehaztuko du edo moldatu finkatuko diren epeen arabera.

Herriaren tipologiaren arabera honako mailak hartuko ditugu helburutzat

| Herri tipologia | Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna) | Graduazioa |
|-----------------|--|---|
| • 1. tipologia | %70 - %100 | Kontratazio berri guzietan. |
| • 2. tipologia | %50 - %70 | Kontratazio berri guzietan. |
| • 3. tipologia | %15- %50 | Herriaren ezagutza tasa (euskaldunak + ia euskaldunak) + 20 puntu |
| • 4. tipologia | %0- %15 | Herriaren ezagutza tasa (euskaldunak + ia euskaldunak) + 20 puntu |

10. ARTIKULUA Agiriak inskribatzea

Herriko Etxeko erregistroak euskaraz ere beteko dira (delibero, erabaki, baimenak, gutunak...), izan dadin erregistro berean edo erregistro ezberdinetan.

Herriko Etxean sartzen diren edo Herriko Etxetik ateratzen diren agiriak, herritarrekiko komunikaziorako erabiltzen direnak euskaraz ere eginen dira.

Agiria ofizialak

Herriko Etxearen bando, araudi, delibero eta erabaki, estatu-zibileko akta, baimen... oro bi hizkuntzetan argitaratuko dira euskara lehenetsiz.

11. ARTIKULUA Euskarak lehenetasuna

Delibero honen arabera mezua derrigor bi hizkuntzetan eman behar den kasuetan, euskarazkoa lehenetsiko da denbora, tamaina, kopurua eta lekua erabiliz.

12. ARTIKULUA Bilkuren bildumak

Herriko Etxeko kontseiluen, batzordeen nahiz lotuak zaizkion kanpoko erakundeen bilkuretako bildumen testu originalak euskaraz idatziko dira. Erdaraz idatziko balira, euskarazko bertsioa sistematikoki segurtatuko da.

13. ARTIKULUA Euskara lan-hizkuntza

Herriko Etxeko batzorde guziek dute erabakitze gaitasuna ukan ala ez beren ohizko lan-hizkuntzat euskara hautatzeko beharra. Erabaki hori hartzen duten organoen bilkurak sistematikoki euskaraz eginen dira, eta euskaraz ez dakiten partaideentzat aldebereko itzulpen-zerbitzua ematen da. Era berean, batzordeen bildumak, gutunak, jakinarazpenak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira, beharrezko den kasuetan frantsesera itzultzearen kalterik gabe.

Langileek barne-funtzionamendurako ohar eta azalpen informaletan euskararen erabilpena ziurtatzea bere eginen dute.

Herriaren tipologiaren arabera honako mailak hartuko ditugu helburutzat

| Herri tipologia | Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna) | Graduazioa |
|-----------------|--|---|
| • 1. tipologia | %70 - %100 | Herriko Etxeko zerbitzu guzien ohiko lan-hizkuntza euskara izanen da. |
| • 2. tipologia | %50 - %70 | Herriko Etxeko zerbitzu guzien ohiko lan-hizkuntza euskara izanen da. |
| • 3. tipologia | %15- %50 | Plangintzaren eraginpeko zerbitzuek aldi bereko itzulpen sistema izanen dute. |
| • 4. tipologia | %0- %15 | Plangintzaren eraginpeko zerbitzuek aldi bereko itzulpen sistema izanen dute. |

14. ARTIKULUA **Bilkuretako deialdiak**

Herriko Etxeko bilkuretako deialdi guziaz euskaraz idatziko dira, beste hizkuntza ofizialaren itzulpena galdegiten duten partaideei bakarrik igorriko zaie bertsio elebiduna, euskara lehenetsia izanen delarik.

15. ARTIKULUA **Kanpo-komunikazioa**

Komunikabideekiko harremanak

- 1.- Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak euskaraz emanen dira ezagutzera lehenetsunez, bertze hizkuntza erabili behar denean euskarazko mezua lehenetsiko da denbora, tamaina, kopurua, kolorea eta lekua erabiliz.
- 2.- Komunikabideetara bidaltzen diren ohar, abisu, prentsa txosten eta informazioekin ere berdin jokatuko du Larrunaldeko Herriko Etxeak. Bertzalde, Herriko Etxeak komunikabideei euskara lehenetsia galdeginen die.
- 3.- Herriko Etxeari lotzen zaizkion kanpoko zerbitzuen publizitatea egiterakoan euskara lehenetsunez hartuko da kontuan.
- 4.- Publizitatea egiteko garaian, euskarazko herriko komunikabideak beti hartuko dira kontuan. Era berean, euskarazko herriko komunikabideekin hitzarmenak eginen dira dirulaguntzak bideratzeko xedez.
- 5.- Hautetsiek prentsarekin harremanak dituztelarik, euskararen erabilera bermatu behar dute, euskara lehenetsiz.

Herriarrei begirako komunikazioa

Inprimakiak eta tanpoinak

Herriko Etxeak eta bere menpeko organismoek erabiltzen dituzten inprimakiak euskaraz lehenetsunez eta erdaraz idatzirik inprimatuko dira, edozoinetan betetzeko moduan eta euskara kasu guzietan lehenetsita.

Halaber, Herriko Etxearen eta bere menpeko organismoen tanpoinak, nahiz barne funtzionamendukoak, nahiz proiektzio publikoa duten agirietan erabiltzekoak, euskaraz idatziko dira.

Gisa bera eginen da karrikan jartzen diren Herriko Etxeak afixatzen duen beste edozein dokumentu-rekin.

Kanpo-irudia

Herriko Etxearen kanpo komunikazioari begira, euskararen erabilera bermatuko da afixa, aldizkari, eskuorri, jakinarazpen, webgune eta dena delako elementuetan.

16. ARTIKULUA Euskara bakarrik erabiliko diren kasuak

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiliko da:

1. Euskara lan-hizkuntza duten enpresa, saltoki eta era guzietako entitateei eta Euskalgintzakoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
2. Errotulu, seinale eta antzekotan euskaraz eta erdaraz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.
3. Mezua piktogramaz baliatuz adieraz litekeenean.
4. Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta jasotzailearen berezitasunek hala galdatzen dutenean.
5. Karrika, plaza eta edozoin leku publikoren izena, bai errotuluetan, baita izen horiek biltzen dituen karrikategi ofizialean ere.

Herriaren tipologiaren arabera honako mailak hartuko ditugu helburutzat

| Herri tipologia | Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna) | Graduaioa |
|-----------------|--|-------------------------|
| • 1. tipologia | %70 - %100 | Euskara hutsean. |
| • 2. tipologia | %50 - %70 | Euskara hutsean. |
| • 3. tipologia | %15- %50 | Euskara lehenetsiko da. |
| • 4. tipologia | %0- %15 | Elebitan erabiliko da. |

17. ARTIKULUA Herriko Egoitzetako seinaletika

Herriko Etxeko, Herriko Etxeak kontratatatu eta Herriko Etxearen menpeko erakundearen egoitzetako errotiluzioa euskaraz lehenetsunez emanen da.

Herriaren tipologiaren arabera honako mailak hartuko ditugu helburutzat

| Herri tipologia | Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna) | Graduazioa |
|-----------------|--|-------------------------|
| • 1. tipologia | %70 - %100 | Euskara hutsean. |
| • 2. tipologia | %50 - %70 | Euskara hutsean. |
| • 3. tipologia | %15- %50 | Euskara lehenetsiko da. |
| • 4. tipologia | %0- %15 | Elebietan erabiliko da. |

18. ARTIKULUA **Beste erakundeekiko harremanak**

Herriko Etxeak kanpoko erakunde eta administrazioei jakinaraziko die harremanak euskaraz garatu nahi dituela eta horretarako neurriak har ditzan eraginen du.

19. ARTIKULUA **Herritarren ezagupena eta erabilpenaren sustapena**

Larrunaldeko Herriko Etxeak herrian euskara normalizatzeko lau helburu nagusi hartzen ditu: euskaraz dakiten herritarren kopurua emendatzea, euskararen erabilpena segurtatzea, euskaraz dakitenek, baita ikasten ari direnek ere, erabil dezaten bultzada iraunkorra ematea eta enpresa, denda eta era guzietako eragileen lanak euskalduntzea.

Horiek horrela, euskaraz dakitenen hizkuntza-ohiturak aldatzearen baita sentsibilizatzearen aldeko saioak burutuko ditu Herriko Etxeak, nola bere ekimenez, hala bere gaineratik diren Erakundeek, herritarren eta enpresa, saltoki eta era guzietako eragileen arteko bitartekotza eginez eta Bai Euskarari Herrietan ekimena sustengatuz.

Euskararen erabileraren normalizazioaren aldeko ekimenak sustatuko ditu herriko etxean baita herrian ere, bere ahalmena eta eskumena delarik.

Bestalde, herrian antolatzen diren beste ekintzetan ere euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak burutuko ditu, herriko elkarte edota beste sektoreetako ordezkariekin elkarlanean (kultura, kirola, sektore sozioekonomikoa...).

Era berean, eta erabilera segurtatu eta bultzatu, eta gaurko erabilera eremuak handitzeko xedez, ahalgin berezia egingen du euskaraz hitz egiten dakitenak alfabetatzea edo euskara ez dakitenek ikas dezaten (beka sistema edo doakotasuna bermatzeko neurriak hartuz).

20. ARTIKULUA

1.- Toponimia

Larrunaldeko herriko karrika, bide, auzo, auzune, menditto eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak, Larrunaldeko Herriko Etxeak finkatuko ditu bere eskumen eremuan. Hori horrela dela-

rik, Larrunaldeko herriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspina egingen du Herriko Etxeak, eginkizun horren ardura dagokion Erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera. Euskal jatorrizko leku-izena den kasuetan, ortografia (herriarena barne) zuzen idatziko da.

2. Trafiko-seinaleak

Herriko Etxearen kompetentzian diren herri bideetako trafiko-seinale eta iragarpenak oro euskaraz idatzita izanen dira. Bertze hizkuntza (frantsesa) erabili behar den kasuan, euskarazko testua lehenetsiko da, nazioarteko arauak errespetatu eta ulergarritasuna bermatzearen kalterik gabe. Herriko Etxearen kompetentzian ez direlarik Herriko Etxeak hornitzaileei euskararen presentzia berma dezaten galdegin die. Horren erresteko, euskararen alde antzeko engaiamenduak hartu dituzten bertze administrazioekin batera eragiten saiatuko da.

3. Piktogramak

Ulgarritasuna piktograma bidez bermatu ahal litekeen kasuetan, euskarazko testua bakarrik izanen dute iragarpenek.

21. ARTIKULUA **Garraio publikoa**

Larrunaldeko garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz egin dadin eta mezuaren ulergarritasuna bermatu ahal litekeenean euskara hutsean egin dadin neurri eraginkorrak hartuko ditu Herriko Etxeak. Era berean, abiapuntua Larrunalden ez izan arren, herri honetan garelakua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egitea galdeginen zaie.

22. ARTIKULUA **Herritarren ezagutza eta erabileraren sustapena**

1. Dirulaguntzak

Euskara jendarte-eremu guzietan eta publizitatean erabil dadin eta oro har, jendarte-bizitzan euskararen presentzia emenda dadin, neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei. Hortaz, Larrunaldeko Herriko Etxeak aipatu xedearen harian, eta bere kompetentzia eremuan, honako neurriak hartu eta betearaziko ditu:

Kultur, kirol eta aisialdi elkarteei dirulaguntzak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Larrunaldeko Herriko Etxearengandik dirulaguntza bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, beren ekimenen kari argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar, afixa, eskuorri eta gainerakoak euskaraz idatzi eta ezagutzera eman ditzaten sustatzeko gisan, euskara erabiltzeagatik laguntza handiagoa eskainiko die edo laguntza berezia eskainiko die, komunikazioa, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz egin dezaten. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez zabaltzen dituzten mezuak ere euskaraz ematea ziurtatuko du .

Euskara erabiltzeagatik laguntza handiagoa eskainiko die, komunikazioa, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz egin dezaten.

Euskaraz eta erdaraz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman

beharko zaio lehenetasuna.

Euskalgintzan euskararen alde lan egiten duten erakunde bakoitzarekin hitzarmen berezituak izanen ditu Herriko Etxeak, haien lana egoki eta eraginkorki egin dezaten eta emaitzak hobe daitezen.

2. Herri-instalazioen eta materialen erabilpera

Herriko instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aitzineko puntuan aipaturiko baldintzak beteko dira. Herriko Etxeak, beraz, pilota-plaza, hesiak, oholtzak eta zernahi herriko instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emanen die interesatuei, baimena ematerakoan herriko etxeak hartu erabakien berri emanen zaie eta euskararen presentzia bermatzeari sentsibilizatuko dira. Horrez gain, komunikazioa euskaratzeko laguntza eskainiko die Herriko Etxeak.

3. Kioskoak, barrakak eta abar

Festetan, zirkuetako, kioskoetako zein lurzoru publikoan jartzen den edozein instalaziotako idazki, iragarki eta afixak euskaraz emanen dira ezagutzera, eta beraz, instalatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere azalduko da, eta horrela jakinaraziko zaie jabeei.

4. Publizitate zerga

Publizitate zerga baliatzen den herrietan, euskara hutsean idatziriko errotuluek ez dute publizitate zergarik ordainduko

Normalizazio planak abiatzen dituzten enpresekin partaidetzak bultzatuko ditu eta jendartean nabarmentzeko kanpaina berezituak egingen ditu Larrunaldeko Herriko Etxeak.

23. ARTIKULUA Irakaskuntza ez unibertsitarioa

Larrunalden ematen den irakaskuntza ez unibertsitarioan eredu euskaldunenak gero eta gehiago heda daitezen saio bereziak egingen ditu Herriko Etxeak. Batez ere matrikulazio-epeak irekitzean, euskalduntzea lortzen duen sistemaren alde egingen du Herriko Etxeak eta Hezkuntza Sistemak belaunaldi berriak oso-osorik euskaldundu daitezen lan politikoa egingen du. Era berean, eskola-mundua eta eskola-haurren arteko giroa euskalduntzeko ekimen osagarriak ere bultzatuko ditu Herriko Etxeak.

Hori guziaz, ikastetxeekin eta Euskalgintzarekin elkarlanean burutuko da.

24. ARTIKULUA Herriko haurtzaindegiak

Ama-hizkuntza euskara ez, baizik eta beste edozein hizkuntza duten hurrek, euskara nekerik gabe ikasi ahal izan dezaten bizitzako lehen urteak biziki garrantzitsuak direla kontuan hartuz, Herriko Etxea haur sortuberriak dituzten burasoei sistematikoki zuzenduko zaie Herriko Haurtzaindegi zerbitzuaren berri emanez eta zerbitzu horrek, euskara ikasteari dagokionean, beren haurrentzat dituen alderdi onak jakinaraziz. Larrunaldeko Herriko Etxeak 0-3 urteko eskaintza euskara hutsezkoa izan dadin segurtatuko du. Horrek esan nahi du Herriko Etxeak herriko haurtzaindegiak euskalduntzeko engaiamendua hartzen duela

25. ARTIKULUA

Herriko biztanle berriak

Herriko Etxe gehienetan biztanle berriei harrera egiten zaie. Herriko Etxeak indar berezi bat eginen du, herritar berriei, bereziki, kanpokoak direnean, euskararen normalizazioari buruz hartu neurriak aurkezteko eta sentsibilizazio lana egiteko hala nola, urtean behin biztanle berriei harrera egiteko antolatzen den bilkura-zintzur bustitze ekitaldian, informazio-gutun edo gida baten bitartez... Ahalmenak dituen heinean, ekintzak antolatuko ditu herritar berriak euskara ikastera animatzeko.

Herriko eragile berriak

Sektore sozioekonomikoan, eragile berriak herrian plantatzen direlarik, Herriko Etxeak indar berezi bat eginen du aktore berriei euskararen normalizazioari buruz hartu neurriak aurkezteko eta beraiek ere, beren erakundearen euskararen aldeko neurriak hartzea bultzatzeko.

26. ARTIKULUA **Helduen euskalduntze-alfabetatzea**

Hizkuntza-normalizazioaren eremuan herri honen xede nagusietarikoa Larrunalden euskaraz mintzatzen dakitenean kopurua emendatzea eta mintzatzeko gai direnak alfabetatzea denez, kontutan hartuz, alde batetik, eta eskoletatik, gaur egun, ez direla denak euskara behar bezala ikasita ateratzen eta, halaber kontutan hartuz erantzukizun publikoa dela euskalduntzearena, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako eskaintza bereziki indartuko du herri honek

27. ARTIKULUA **Euskararen aldeko eta euskarazko ekimenen antolaketa**

Larrunaldeko herriko jendarte bizitza euskalduntzearen, Herriko Etxeak hainbat sektore euskalduntzeko prozesuak bultzatuko ditu, eta haur, gazte eta helduendako kultura eta aisialdirako ekintzak antolatuko ditu, hirian den euskalgintzarekin lankidetzan jardunez.

28. ARTIKULUA **Jendarte-bizitzaren euskalduntzea**

Artikulu honetan xedatua betetzeko, Herriko Etxeak, (Herriko Ekintza Sozialerako Zentroaren laguntzarekin) Herriko bizitza sozial eta kulturalaren alor guzietan euskararen erabilpena sustatzeko kanpainak eginen ditu, bereziki merkataritzako, dendaritzako, lanbideetako, kulturako, kiroltako eta antzeko erakundeengana zuzenduz. Kanpainen helburu nagusia sektore desberdinetako enpresa, saltoki eta era guzietako entitateek normalizazio planak abiatzea izanen da.

Larrunaldeko herriko jendarte bizitza euskalduntzearen, Herriko Etxeak hainbat sektore euskalduntzeko prozesuak bultzatuko ditu.

Bai Euskarari Herrietan ekimena sustengatuko du Herriko Etxeak.

29. ARTIKULUA **Ordezkaritza politikoa: arduradun politikoak**

Herriak hautatu baina euskara ezagutzen ez duten arduradun politikoak euskara ikasten hasiko dira legegintzaldiaren bukaeran euskaldun izateko helburuarekin. Bitartean aldi bereko itzulpen-sistema

erabiliko da. Euskara maila apala duten hautetsiei ere, irakurketan zein idazketan, maila indartzeko formakuntza proposatzen ahal zaie.

Xedapen Gehigarriak

LEHENA

Delibero honetan gai nagusia Hizkuntzaren erabilera normalizatzeko plana da. Beraz lehen lehenik, Herriko Etxeak, aipatu puntuak bilduko dituen Plana onartu behar luke eta ahal den neurrian, aplikazioaz arduratzeko baliabideak bozkatu.

BIGARRENA

Herri mailan euskal hiztunen kopurua neurtzeko inkesta soziolinguistiko zehatza burutuko da, errolda baliatuz edo herriko Etxearen ekimen propioaren bidez eta herritar guziei zuzendua.

HIRUGARRENA

Herriko Etxearen arabera euskara zerbitzua sor daiteke. Delibero honen aplikazioaz arduraren teknika beregain hartuz. Haatik, ez da itzultzaile soila bilakatu behar. Euskara zerbitzua sortuz geroz, Herriko Etxeak baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskainiko dizkio Plana behar bezala kudeatzeko gisan. Bere ardurak ondokoak dira:

- 1.- Planaren aplikazioa kudeatzea
- 2.- Proposamenak egitea
- 3.- Jarraipen-batzordearekin elkarlanean aritzea
- 4.- Jarraipen batzordeak eta Herriko Kontseiluak hartu erabakiak eta onartu plangintzak aplikatzea eta haien ebaluazioa egitea.
- 5.- Kexak bideratzea: Planean hartu erabakiak bete ez balira herritarrek kexa egiteko aukera lukete, euskara zerbitzuarengana joz.
- 6.- Euskara zerbitzua osatuko da

Jarraipenerako Batzorde Berezia

LAUGARRENA

Hizkuntza-normalizazioaren segimendua egiteko Batzorde Berezia sortuko da beste herriko etxeko batzordeen parekoa, nun, herriko ordezkari politikoez gain, langileen ordezkariak ere parte hartuko baitute, langileriaren euskalduntzeari eta hizkuntza eskakizunen aplikazioari buruzko gaietan.

Batzordean Euskalgintzako erakundeek ere parte hartu dezakete horretarako interesik balego eta normalizazioaren bilakaeraren inguruko aholkulari ofizialak izanen dira Bai Euskarari Akordioa Herrietan ekimenaren baitako jarraipen batzorderik ez bada sortu herrian.

Batzordearen betebeharrak

BOSGARRENA

Batzorde horri dagokio delibero hau betetzea, proposamenak prestatzea, eta baita deliberoaren garapenaren segimendua, kontrol eta ebaluaketa-lanak. Aldiro, helburuen betetze maila ebaluatuko du, eta halaber euskalduntze prozesuaren edozein fasetan sumatu gibelapen edo zailtasunak konpontzeko neurri egokiak aztertuko ditu.

Emaitzen neurketa

SEIGARRENA

Delibero hau indarrean sartu eta handik lau urterat Batzorde honek neurtuko ditu hizkuntza-normalizazio prozesuan lortu emaitzak, eta horrela badagokio, Herriko Etxeari deliberoa berrikusteko proposatuko dio.

ZAZPIGARRENA

Langileen ordezkariak entzunen da euskalduntze-planak eta euskarako ikastaroetarat joateko egutegiak egin baino lehen eta Larrunaldeko Euskalgintzarekin harremanak estutuko ditu pauso eraginkorrak emateko aseguru gisa

Kontseilua
2008ko urtarrila



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA